

Uztaritzeko Herriko Etxean, 1983.eko Maiatzaren 23an, goizeko hamaika t'erdietan, P. Lafitte euskaltzainaren omenez egin du Euskaltzaindiak bere batzarre irekia. Etorri dira: L. Villasante burua, J. Haritschelhar buruordea, P. Altuna, J. L. Davant, J. Hiriart-Urruty, A. Irigoyen, E. Knörr, P. Lafitte, E. Larre, F. Ondarra, J. San Martin eta J. M.^a Satrustegi, euskaltzainak. S. Onaindia eta J. Riezu euskaltzain ohorezkoak. L. Akesolo, G. Alfaro, J. Allières, J. L. Alvarez "Txillardegia", J. A. Arana, M. Azkarate, R. Badiola, R. Camblong, J. Casenave, P. Charritton, J. B. Dirassar, M. Erdozaincy-Etxart, J. B. Etxarren, J. M.^a Etxebarria, J. L. Goikoetxea, M. Goienetxe, B. Goity, M. Hegiaphal, R. Idiart, M. Itzaina, D. Landart, M.^a P. Lasarte, J. M.^a Lekuona, J. L. Lizundia, M. J. Minaberri, B. Oihartzabal, Tx. Peillen, M. Ugalde, P. Uribarren, X. Videgain eta J. J. Zearreta, euskaltzain urgazleak, J. M.^a Satrustegi idazkari dela.

X. Diharce, P. Larzabal, L. Mitxelena eta A. Zavalak ezin etorria adierazi dute.

B. Dassance jaun auzapeza mahai buruan dela hasi da batzarrea.

Martxoko batzar agiririari buruz A. Irigoyen euskaltzainak, *Pertsona Izendegia* aipatzen denean osoko zuzenketa egitea idatziz aurkeztu zuela esatea, eskatu du. Oharra egungo batzar agirian sartzea onartu da.

Goizeko bilkuraren berri

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza eta Kultur Saisetarik jasotako gutunari erantzunez, erdarazko *Defensor del pueblo* esaldiaren kideko, euskaraz ARARTEKO hitza gomendatzea onartu da. Beste gutun baten bidez, Nafarroan eta, bide batez, Iparraldean egingo diren azterketetan, EGA —Euskararen Gaitasun Agiria— lortzeko ezarri den ereduaren antzekoa erabiltzea eskatzen da, Euskal Herri guzirako konbalidazioari begira. Horrela erabaki da. Azkenekoz, Bizkaiko Irakaskuntzan joskeraren arazoak bideratzen joateko lantalde bat izendatua dela, adierazten zaio Euskaltzaindiari. Joskeraren arazoak ez dira Bizkaiko euskalkiarenak bakarrik, eta garrantzitsua bezain zaila denez lan hori, kontuz ibili behar dela deritzo, eta tradizioari zor zaion begiramenduarekin. Azken hitza, nola nahi ere, Euskaltzaindiari dagokio.

Madrilgo Kultur Ministeritzatik bi eskari jaso dira: Literatur sorketako laguntzak banatzeko epai mahairako ordezkaria izendatzea, eta Itzultzaileen sari banaketarako izendapena. Lehenengoaz A. Irigoyen arduratuko da, eta bigarrenera J. San Martin joango da.

Ondoren, Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialaren gutun bat irakurtzen da, zeinetan, Akademi Elkargo honen aldetik, Kontseilari orokor bat izendatzea eskatzen da. Aho batez, Juan San Martin Ortiz de Zarate euskaltzaina izendatzea erabaki da.

J. M.^a Velez de Mendizabal euskaltzain urgazlea Kultur Kontseilariorde izendatu berri dela jakin dute batzartuek, eta zorionak ematea erabaki da.

Batzorde eraberritzea. Angoston proposatutako batzorde eta batzordekideen zerrendak ikusi ondoren, honela gelditu dira:

I. Iker Sailekoak. 1) *Hiztegitintza*. L. Mitxelena buru, I. Sarasola, buru-orde, M. Zalbide idazkari, R. Badiola idazkari-orde, X. Kintana, L. M.^a Mujika eta Tx. Peillen. Batzorde honen eginkizunetan sartzen dira, Mitxelenaren hiztegia, Euskaltzaindiaren hiztegiak, maileguzko hitzen finkapena eta hitzen normalizapenerako ikerketak. 2) *Gramatika*. P. Lafitte buru, J. Haritschelhar buru-orde, P. Goenaga idazkari, M.^a P. Lasarte idazkari-orde, P. Altuna, M. Azkarate, J. A. Mujika eta K. Rotaetxe. Honen gain egongo da, gramatika ikerlanen ardura eta, une honetan, Euskaltzaindiaren X. Kongresoaren prestateta. Aditzaren batzorde suntsikorra ere bertan sartzen da. 3) *Euskalkiak*. F. Ondarra buru, J. M.^a Etxebarria idazkari, A. Irigoyen, A. M.^a Etxaide, J. A. Letamendia, X. Videgain. Lehengo Dialektologia batzordearen ekin-tzak eta Atlas-erako lanak eramango ditu. 4) *Onomastika*. L. Mitxelena buru, J. L. Lizundia idazkari, J. L. Davant, P. Charritton, A. Irigoyen, E. Knörr, E. Larre, J. B. Orpustan, J. San Martin eta J. M.^a Satrustegi. Herri Izendegia, Pertsona Izendegia, Toponomia lanak, izen ikerketak eta diktamenak hartzen ditu.

II. Jagon Sailekoak. 5) *Literatura*. F. Krutwig buru, A. Lertxundi idazkari, X. Diharce, J. Hiriart-Urruty, J. Kortazar, K. Otegi eta A. Urretabizkaia. 6) *Bertsolaritza*. A. Zavala buru, J. San Martin buru-orde, A. Aranburu idazkari, J. M.^a Aranalde, J. M.^a Etxezarreta, A. Irigoyen, J. M.^a Iriondo, M. Itzaina, E. Larre, J. M.^a Lekuona eta A. Muniategi. Batzorde suntsikorrak: *Oinarrizko Euskara*. J. San Martin buru, I. Unzurrunzaga idazkari, R. Badiola, J. L. Goikoetxea, P. Uribarren, G. Aurrekoetxea eta N. Agirre. *Etsaminak*. A. Irigoyen buru, J. J. Zearreta idazkari, P. Altuna, P. Goenaga, P. Arregi, P. Charritton, J. Fdez. Setien, X. Kintana, P. Uribarren, J. M.^a Aleman, G. Aurrekoetxea, M. Azkarate, J. L. Goikoetxea, J. M.^a Azpizoz eta A. Ariznabarreta.

III. Egiturazkoak. *Ekonomia*. E. Knörr buru, J. J. Zearreta eragile, X. Gereño kontulari eta J. M.^a Velez de Mendizabal. *Argitalpenak*. L. Villasante buru, J. Haritschelhar buru-orde, J. M.^a Satrustegi idazkari, R. Badiola eragile, P. Altuna, J. A. Arana, A. Irigoyen, P. Lafitte, L. Mitxelena, J. San Martin eta I. Unzurrunzaga. *Azkue Biblioteka*. A. Irigoyen buru, J. A. Arana liburuzain-orde, J. San Martin, X. Kintana eta J. J. Zearreta.

Batzar irekia eta hitzaldiak

Uztaritzeko auzapez den B. Dassance jaunak eman dio ospakizunari hasiera. Ohoretzat dauka Euskaltzaindia herrian biltzea, gainera, ez du ahan-tzi euskaltzain zela bere aita. Amodiozko hitzak ditu euskararentzat eta denon indarraren beharretan dela gure hizkuntza bere apalaldian, esan du. P. Lafitte omenduari buruz aditzera eman du, bertan sortu ez bazen ere, han eman dituela bere biziko urterik gehienak eta bere jakintzaren emaitza sakinak. Horregatik, ongi deritzo omenaldia Uztaritzen egi-teari eta bihotzez eman dizkio zorion eta milesker.

Euskaltzainburua mintzatu da gero. Harrera onagatik eskerrak eman ondoren, alkate jaunaren aita zen L. Dassance euskaltzainaren izena eta lana aipatu ditu, idaz-le herri-kirolzale eta euskal kantu biltzale bezala.

P. Lafitteren festari buruz, leku aproposagorik ezin zela aurkitu, esan du. Hitzaldi batean omenduaen merezimendu eta lan guztien aipamena egiterik ez dagoelarik, bere bizitzako zenbait ezaugarri aipatu ditu. Euskaltzaindiari dagokionez, batzarrei jarraitua. Ez da ahortzi behar, une larrietan berak eta bere lagunak salbatu zutela Euskaltzaindia, batzarreetara joanez. Gaur bertan ere, Gramatika batzordearen buru da omendua.

Fede haundiko gizona, bestalde, bere idazlanetan ongi agertzen denez, eta euskaltzaletasunean gizon ospetsuen zuzia jaso eta bizirik ondorengoei uzten diela, esan du.

Urgazle-agirien banaketa. Iparraldeko urgazle berriei izendapenen agiriak eman zaizkie. Lau dira oraingoan izendatuak: M. Erdozaincy-Etxart, B. Goity, B. Oiharzabal eta X. Videgain. Ez direla merezimendudun bakarrak, aitortu du Villasante jaunak, baina ezin denak batera aurkeztu.

J. Haritschelhar jaunak, ezin etorria adierazi dutenen gutun ta telegramak irakurri hasi du bere mintzaldia. Euskaldun zaharrek urrezko huntza edo ohorezko maki- la eskaini ohi zutela omenaldietan, esan du gero. Euskaltzaindiak 59 idazleen burulanak eskaintzen dizkio bere lankide ospetsu P. Lafitteri. Lan batzuren berezitasunak eta zenbait idazleen eskaintzat aipaturik, IKER-2 liburuarekin autopista ireki duela Euskaltzaindiak, esan du, eta euskal ikerketak mundu guzian nola diren agertzen duela. Sei hizkuntzetan eginak dira lanak, baina erdiak baino gehiago euskaraz. Gipuzkoako Diputazioari bere diru laguntzagatik, eta Aranzadi argitaletxeari eskerak emanez, amaitu du bere mintzaldia.

Mari Jean Minaberrik Lafitteri eskaintako olerkia irakurri du gero, hala nola, liburuan den Iratzederren hasierako *irri-karkailaren* poema.

Liburuaren eskaintza. IKER-2, omenezko liburua, eman dio eskura Lafitte jaunari euskaltzainburuak, Udaletxeko aretoa betetzen zutenen txalo beroen artean.

“Xutitu gabe, finitzen ari naizelako marka”, hasi du P. Lafitte jaunak bere hitzaldia. Txunditurik bezala dagoela entzundakoez, eta eskerrak bihurtzen dituela denei, esan du. Hautzaro eta bere gazte denborako berriak eman ditu lehenik, kantuz urratsak emanez eskolan sartzen zireneko hitzak errepikatuz: “eta kanta nitzake erlats ez banitz”, esan du irri zabalarekin. Izan dituen maisu haundien aipamena egin du, Seminarioan iragan 55 urteak ahortzi gabe.

Eskaini zaion liburuaz mintzatzean, ikerlanen goren-goreneko maila duela, azpimarratu du. Berriak dira lanak, eta metodo berriaz eginak, esan du. Nolako lanak! Gazteen laudorioa egitean, badakitela lanean aitortu du. Hori dela eta, Lukas ebanjelariak Simeon agurearen ahoan ezarritako *Nunc dimittis* hitzak gogoratu ditu, gazte horien ahalmena ikusten duelakoz eta, esku onetan utziz, euskararen salbamena etorri delakoz.

Auzapezaren hitz labur batzurekin amaitu da batzarrea.

Euskaltzainburu
Fr. LUIS VILLASANTE

Idazkaria
JOSE M.^a SATRUSTEGI